BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, ELGOIBARKO AITA AGIRRE ERAIKINEAN DAGOEN KULTUR KAFEA PROZEDURA IREKIAREN BITARTEZ KUDEATZEKO ETA USTIATZEKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO

PLIEGO DE CONDICIONES TECNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DE SERVICIOS POR PROCEDIMIENTO ABIERTO PARA LA GESTIÓN Y EXPLOTACIÓN DEL KULTUR KAFEA DEL EDIFICIO AITA AGIRRE EN ELGOIBAR

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Plegu honen bitartez egingo den kontratuaren xedea izango da Elgoibarko Aita Agirre eraikinean dagoen kultur kafea kudeatzea eta ustiatzea, eta erabiltzen diren instalazio guztiak garbitzea. Kontratua Baldintza Administratiboen eta Baldintza Teknikoen Pleguei eta espedientean ageri den dokumentazio teknikoari jarraikiz exekutatuko da. Horiek guztiek, beraz, kontratuzko izaera edukiko dute.

Esleipendunak zerbitzuak normal funtziona dezan beharrezkoak diren produktuak eta gaiak erosi eta saldu beharko ditu. Halaber, produktu eta gai horien kalitatearen ardura izango du. Horretaz gain, taberna batean ohikoak diren zerbitzuak eskaini ahal izango ditu. Horiek horrela, alkoholdun eta alkoholik gabeko edariak, kafeak eta ordezkoak, pintxoak, kazolatxoak, menuak, e.a. eskaini ahal izango ditu.

Erabat debekatuta dago, zuzenean edo zeharka, tabakoa eta legez kanpoko produktuak saltzea.

Interneten, telefonoaren, elektrizitatearen, gasaren, zaborraren eta uraren gastu guztiak esleipendunaren kontura izango dira,

Terraza erabiltzeko, bestalde, beharrezkoa den baimena eskatu beharko du Hirigintza Sailean. Horren inguruko zalantza guztiak Kultura Sailari emango zaizkio aditzera, hura baita kontratuaren arduraduna.

Elgoibarko Udala erantzukizun penaletik, zibiletik edo beste edozein motatako erantzukizunetik salbuetsita gelditu da, ordainketa ezak, hornitutako produktuen kontsumoaren ondorioz sortzen diren intoxikazioak edo beste mota batzuetako arazoak gertatzen badira.

1.- OBJETO DEL CONTRATO

El contrato que en base al presente pliego se realice tendrá por objeto la gestión y explotación del kultur kafea del edificio Aita Agirre de Elgoibar, así como de la limpieza de todas las instalaciones a utilizar, que se ejecutará de conformidad con el Pliego de Cláusulas Administrativas, con el de Prescripciones Técnicas y con la documentación técnica que figura en el expediente, que tendrán carácter contractual.

El/la adjudicatario/a deberá ocuparse de la adquisición y venta de los productos y artículos que necesite para el normal funcionamiento del servicio, responsabilizándose de la calidad de los mismos, pudiendo desarrollar los servicios propios de un bar, sirviendo bebidas alcohólicas y no alcohólicas, cafés y sucedáneos, pintxos, cazuelitas, menús etc.

Está terminantemente prohibida la venta de tabaco y de productos ilegales, ni directa ni indirectamente.

Los gastos de internet, telefonía, electricidad, gas, basura y agua serán todos a cuenta del adjudicatario.

En cuanto al uso de la terraza, tendrá que solicitar la autorización correspondiente en el Departamento de Urbanismo. Cualquier incidencia a este respecto, se dará cuenta al Departamento de Cultura como responsable del contrato.

El Ayuntamiento de Elgoibar quedará totalmente exonerado de cualquier responsabilidad penal, civil o de cualquier otra índole, bien sea por impagos, por intoxicaciones producidas por el consumo de los productos suministrados o por cualquier otro tipo de motivos.

2.- ORDUTEGIA

Taberna jendearentzat irekita egongo da honako ordutegi honetan:

2.- HORARIO

El bar permanecerá abierto al público en el siguiente horario:

- Astelehenetik ostegunera: irekiera 7:00ak eta 9:00ak bitartean. Itxiera 22:00etan.
- Ostirala eta larunbata: Irekiera 7:00ak eta 9:00ak bitartean. Itxiera: 1:30etan
- Igande eta jaiegunetan: Irekiera 9:00ak eta 11:00ak bitartean. Itxiera: 22:00etan

Ordutegia aldatu ahal izango da, baldin eta Udalak, aldez aurretik, horretarako baimena ematen badu. Baimena lortzeko, ordea, baimen eskabidea aurkeztu beharko da.

Taberna honako egun hauetan itxita egon ahal izango da. Ixtea erabakitzen bada, sare sozialen bidez eta atean kartel bat jarrita jakinarazi beharko da (euskarari lehentasuna emango zaio beti):

- Urtarrilaren 1ean.
- Urtarrilaren 6an.
- Ostegun Santu egunetik Pazko astelehenera arte.
- Oporrak 25 egunekoak izango dira, eta egun horiek esleipendunaren eta Udalaren artean zehaztu beharko dira.
- Abenduaren 25ean

3.- GARBIKETA

Zerbitzuaren esleipendunak zerbitzuari atxikitako guneak garbitu beharko ditu, eta arreta berezia jarri beharko du jakiak edo edariak manipulatu edo zerbitzatu behar diren lekuak behar besteko maiztasunarekin garbitzeko eta garbiketaren emaitza egokia izateko.

Esleipendunak asteburuetan sakonki garbitu beharko ditu eraikin guztiarenak diren komunak, hartara, ostiraletik igandera, eta jaiegunetan eta jai bezperetan ere; komunak erabat garbi gera daitezen astelehenetan edo jaiegunen ondorengo lanegunetan erabili ahal izateko. Gainera, lehortzeko papera, komuneko papera eta xaboia berritu beharko ditu.

4.- ESLEIPENDUNAREN ESKU JARTZEN DIREN BALIABIDEAK

Elgoibarko Udalak, esku artean dugun zerbitzua hasten den unerako, erabat instalatuta ditu I. ERANSKINEAN jasota dauden gailuak eta tresnak. Hala ere, esleipendunak, bere kontura, zerbitzurako beharrezkotzat jotzen dituen osagai guztiak jarri ahal

- De lunes a jueves: apertura entre las 7:00 y las 9:00 horas y cierre a las 22:00 horas.
- Los viernes y sábados: apertura entre las 7:00 y las 9:00 horas y cierre a las 1:30 horas.
- Los domingos y festivos: apertura entre las 9:00 y las 11:00 horas y cierre a las 22:00 horas.

Este horario podrá ser modificado con consentimiento previo del Ayuntamiento, para lo cual se deberá presentar la oportuna solicitud de autorización.

El bar podrá permanecer cerrado los siguientes días. En el caso de que se decida cerrar, se tendrá que comunicar a través de redes sociales y con un cartel en la puerta (siempre dando prioridad al euskera):

- 1 de enero.
- 6 enero.
- Desde el jueves Santo hasta el lunes de Pascua (ambos inclusive).
- Las vacaciones podrán serán de 25 días, a determinar entre el adjudicatario y el Ayuntamiento.
- 25 de diciembre

3.- LIMPIEZA

El adjudicatario del Servicio deberá proceder a la limpieza de las zonas adscritas al servicio prestando especial atención en cuanto a frecuencia de limpieza y resultados de la misma en las zonas donde se deba manipular o servir alimentos o bebidas.

Deberá realizar una limpieza exhaustiva de los aseos comunes al edificio durante los fines de semana, de manera que, desde el viernes hasta el domingo, y los días festivos y sus vísperas queden en perfecto estado de limpieza de cara a los lunes o siguiente día hábil al festivo. Deberá reponer, además, el papel secamanos, el higiénico y el jabón.

4.- MEDIOS QUE SE PONEN A DISPOSICIÓN DE LA EMPRESA ADJUDICATARIA

El Ayuntamiento de Elgoibar, en el momento de comenzar la explotación del servicio que nos ocupa, tiene instalados los útiles y enseres que constan en el inventario recogido en el ANEXO I. Pudiendo el adjudicatario, por su cuenta y riesgo, instalar los

izango ditu, baldin eta horrekin instalazioetan obrak edo aldaketak egiten ez badira. Horretarako, Udalak aldez aurretik baimena eman beharko du.

elementos del servicio que estime necesarios, siempre que no impliquen obras o modificaciones de las instalaciones y que, previamente, se obtenga la autorización del Ayuntamiento.

Ondasunen Inbentarioan ageri diren altzariak, tresnak eta gailuak esleipendunak konpondu eta ordezkatu beharko ditu, baldin eta horien iraupena esleipenerako aldia baino handiagoa dela aurreikusten bada.

Respecto al mobiliario, útiles y enseres que figuran en el Inventario de Bienes y cuya vida se prevé superior al período de adjudicación, las reparaciones serán a cuenta del adjudicatario, al igual que su reposición.

Esku artean dugun zerbitzuan erabiltzen diren materialak eta bitarteko lagungarriak inola ere ezingo dira zentrotik atera, ezta instalazio horietatik kanpo erabili ere; baldin eta Udalak, aldez aurretik, horretarako idatzizko baimenik ematen ez badu.

Los materiales y medios auxiliares que se empleen en el servicio que nos ocupa en ningún momento podrán ser retirados del centro, ni utilizados fuera de dichas instalaciones, sin autorización previa por escrito del Ayuntamiento.

5.- ZERBITZUEN PREZIOAK

5.- PRECIOS DE LOS SERVICIOS

Ostalaritzako jarduerari dagozkion tarifak ez dira udalerrian edo eskualdean antzeko establezimenduentzat ezarrita daudenak baino handiagoak izango.

Las tarifas de la actividad de hostelería no podrán ser superiores a las existentes en el municipio o en la comarca para establecimientos parecidos.

Ostalaritzako establezimendurako sarrera, oro har, librea eta doakoa izango da, bertan, sarreraren bat ordaintzera behartzen duen jardueraren bat egiten denean izan ezik.

La entrada al establecimiento hostelero será, en general, libre y gratuita, a excepción de que en la misma se celebre una actividad que conlleve el pago de una entrada.

Esleipendunak sarrera kobratu ahal izango du antolatzen dituen jardueretan

La persona adjudicataria podrá cobrar entrada en las actividades que organice.

6.- KULTUR KAFEA KUDEATZEA

6.- GESTIÓN DEL KULTUR KAFEA

Enpresa esleipendunak, gutxienez, kontzertu bat edo beste mota bateko ikuskizun/ikastaro/tailer/kultur jardueraren bat antolatu beharko du hilean behin.

La empresa adjudicataria deberá organizar, al mes, como mínimo, un concierto u otro tipo de espectáculo/curso/taller/actividad cultural…

Horretarako, gainerako guneak erabili ahal izango ditu, hala nola, ondoan dagoen gela balioaniztuna; baldin eta gutxienez 15 eguneko aurrerapenarekin erreserbatu eta Udalak erabiltzeko baimena ematen badu. Beste gela batzuk erabili nahi izanez gero, horiek ere garbitu egin beharko ditu.

Podrán usar los demás espacios como la sala polivalente anexa siempre y cuando la reserven, como mínimo, con 15 días de antelación y el Ayuntamiento así lo autorice. En caso de uso de otras dependencias, deberá proceder a la limpieza de las mismas.

Era berean, baldintza horietan, harmailadun ikus-entzunezko aretoa erabili ahal izango du elgoibartarrek ekoitzitako film laburrak edo dokumentalak proiektatzeko.

También podrán utilizar, con estas mismas condiciones, la sala audiovisual de las gradas para proyectar cortos o documentales producidos por personas elgoibartarras.

Kultura Sailak Aita Agirre Kulturgunean antolatzen dituen jardueretan lagundu beharko du, eskatzen zaion guztian.

Tendrá que colaborar en las actividades que el Departamento de Cultura organice en Aita Agirre Kulturgunea, en aquello que se le requiera.

Udalak, hilabeteko aurrerapenarekin adieraziz gero, kultur kafeko instalazioak erabili ahal izango ditu Udalaren proiektu kulturala osatzen duten kultur-ekitaldiak egiteko. Ekitaldi horietan, esleipendunak ezin izango du sarrerarik kobratu.

El Ayuntamiento se reserva, previo aviso de un mes, la posibilidad de utilizar las instalaciones del Kultur Kafea para realizar actos culturales que formen parte del proyecto cultural municipal. En estas actuaciones el adjudicatario no podrá cobrar entrada.

7.- EXEKUZIO EPEA

Prestazioa eskaintzeko guztizko bi urtekoa (2) izango da, eta gehienez ere, bi urteko luzapen bat egin ahal izango da. Luzatzeko akordioa kontratazio organoak hartuko du, eta ezinbestekoa izango da enpresariarentzat, baldin eta aldez aurreko adierazpena kontratuaren epea bukatu baino hiru hilabete lehenago egiten badu.

Kontratatzailea berandutzan erori dela uste izango da aipatutako epea gainditzen badu; horiek horrela, Administrazioak ez du epea betetzeko eskaera egiteko beharrik izango.

7.- PLAZO DE EJECUCIÓN

El plazo total de ejecución de la prestación será de dos (2) años, con posibilidad de una prórroga de dos años. Las prórrogas se acordarán por el órgano de contratación y serán obligatoria para el empresario siempre que su preaviso se produzca, al menos, con tres meses de antelación a la finalización del plazo del contrato.

El contratista se entenderá incurso en mora por el transcurso del plazo citado, no siendo necesaria intimación previa por parte de la Administración.

8.- KONTRATUAREN PREZIOA

Urteko gutxieneko kanona 2.400,00 eurokoa izango da BEZ kanpo, (200,00 € BEZ kanpo hilero). Lizitatzaileek gorantz hobetu ahal izango dituzte euren proposamenak.

Uraren, gasaren, elektrizitatearen eta zabor-tasaren gastuak esleipendunaren kontura izango dira. Argibide moduan, 2022an kontzeptu horien kostua 950,00 eurokoa, BEZ barne, izan zen, hilean

8.- PRECIO DEL CONTRATO

Se establece un canon mínimo de licitación anual de 2.400,00 € IVA excluido, (200,00 € IVA excluido mes), pudiendo ser mejorado al alza por los licitadores en sus proposiciones.

Los gastos de agua, gas, electricidad y la tasa de basuras serán a cuenta del adjudicatario. A modo orientativo, el año 2022 el coste de estos conceptos ascendió a 950,00 €, IVA incluido, al mes.

Elgoibarko Udalak ez du inolako erantzukizunik izango, hornitzaileei ordaintzen ez bazaie, edo hirugarrengoek instalazioetan kalteak edo lapurretak egiten badituzte.

El Ayuntamiento de Elgoibar no se hace responsable de la falta de pago a los proveedores ni de los deterioros o robos que se puedan cometer por terceros en las instalaciones.

9.- FUNTZIOAK EGITEA.

Esleipendunak berak egin beharko ditu kontratuaren xede diren berariazko funtzioak. Hala ere, lanean laguntzaileak eduki ahal izango ditu, esleipendunak eta kontratuari atxikitako pertsonek bete behar dituzten baldintza berberak dituztenak. Administrazioari, aldez aurretik, horren berri eman beharko zaio, eta administrazioak horretarako baimena eman beharko du. Esleipendunak laguntzaileen datu pertsonalak eman beharko dizkio administrazioari.

9.- REALIZACIÓN DE LAS FUNCIONES.

El/la adjudicatario/a deberá realizar directa y personalmente las funciones propias objeto del contrato, pudiendo tener como colaboradores en su trabajo, y siempre previo aviso y aprobación de la Administración, indicando sus datos personales, a personas que reúnan las mismas condiciones de cualificación que debe de cumplir el adjudicatario y las personas adscritas a la ejecución del contrato.

Laguntzaileek, zerbitzua eskaintzen diharduten bitartean, uneoro, lan arloko araudia bete beharko dute, eta Gizarte Segurantzan alta emanda egon beharko dute. Aldi berean, laneko segurtasunaren eta garbitasunaren alorrean legeek ezartzen dituzten baldintza guztiak bete beharko dituzte, hau da, esleipendunari eskatzen zaizkionak.

Kontratuaren arduraduna gaixotasunagatik edo istripuagatik bajan edo oporretan baldin badago, edo baimenen bat baldin badu, esleipendunak ordezkoak izendatu beharko ditu, zerbitzua era egokian eskaintzen jarraitu ahal izateko, eta kontratuan ezarritakoari jarraikiz, hartutako betebehar guztiak bete ahal izateko. Administrazioari, aldez aurretik, egin behar diren ordezkapenen berri eman beharko zaio; hartara, egokitzat jotzen baldin bada, esleipendunaren proposamena onartu edo baztertu ahal izateko.

Los colaboradores, mientras se encuentren prestando el servicio, deberán cumplir en todo caso y momento la normativa laboral, y deberán de hallarse de alta en la Seguridad Social, cumpliendo todos los requisitos establecidos por las leyes en cuanto a seguridad e higiene en el trabajo y que se exigen al adjudicatario.

En caso de bajas por enfermedad o accidente, disfrute de vacaciones, permisos, etc., del/ la responsable del contrato, el/la adjudicatario/a deberá nombrar sustitutos de manera que el servicio se siga prestando de manera correcta y acorde a lo establecido en el contrato y se puedan cumplir todas y cada una de las obligaciones adquiridas. Se deberá informar previamente a la Administración de las sustituciones a efectuar, de manera que, si se estima conveniente, se pueda aceptar o rechazar la propuesta del adjudicatario.

9.- ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK.

Prezioa: 55 puntu
Txosten teknikoa: 45 puntu

9.- CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN

Precio: 55 puntos
Memoria técnica: 45 puntos